

Ordizian, 2014ko uztailaren 23an UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M <sup>a</sup> .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ taldea
Judith Otegi López de Murillas	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

ETORRI EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea (jakinarazi zuen ezinezkoa zitzaiola bertaratzea)
---------------------------	--

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

## **BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK**

### **AZTERTUTAKO GAIAK**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2014ko ekainak 26ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- BILDUK aurkeztutako Mozioa orain dela gutxi hil duten gazte palestinarrari buruzkoa.
- 3.- EAJ aurkeztutako Mozioa "puntu.eus" domeinuari buruzkoa.
- 4.- Diru laguntza eskaera kooperazio proiektu baterako.
- 5.- Mendekoen arretarako etxe laguntza zerbitzua finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko Hitzarmena onartzea.
- 6.- Kreditu aldaketa 10. espedientea.
- 7.- 2013ko kontu Orokorrak onartzea.

#### **PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:**

#### **GORABEHERAK**

#### **ORDUTEGIA:**

HASIERA: 19:00etan

AMAIERA: 19:45etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- 2014ko ekainaren 26ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

2014ko ekainaren 26ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **2.- BILDUK aurkeztutako Mozioa orain dela gutxi hil duten gazte palestinarri buruzkoa.**

#### Proposamena

Ordiziako Udalak irmoki salatzen du Gipuzkoan, Donostia Cup-en, parte hartze izan behar genuen gaztearen eraiketa. Igandean jakin genuen bonbardaketa batean eraila izan zela bere sendiarekin batera.

Ordiziako Udalak dei egiten diote Israeli bertan behera utz dezala Palestinar herriaren aurka une honetan ematen ari den eraso eta helburu berarekin komunitate internazionalari presioa egin dezala eskatzen diote.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

## Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

### Alkate jn

Gogorarazi du 2014-07-16ko Udal Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean esan zuen bezala, nahiz eta ekarritako mozioa Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartutako izan, azpimarratu nahi dela mozioaren bigarren paragrafoa non esaten duen "Ordiziako Udalak dei egiten diote Israeli bertan behera utz dezala Palestinar herriaren aurka une honetan ematen ari den eraso eta helburu berarekin komunitate internazionalari presioa egin dezala eskatzen diote", eta gainera proposatzen dela udaletxeko balkoian Palestinarren bandera ipintzea erasoaldia irauten duen bitartean.

Beraz, bozketapean jartzen den proposamena hau da:

### Proposamena

Ordiziako Udalak irmoki salatzen du Gipuzkoan, Donostia Cup-en, parte hartze izan behar genuen gaztearen eraiketa. Igandean jakin genuen bonbardaketa batean eraila izan zela bere sendiarekin batera.

Ordiziako Udalak dei egiten diote Israeli bertan behera utz dezala Palestinar herriaren aurka une honetan ematen ari den eraso eta helburu berarekin komunitate internazionalari presioa egin dezala eskatzen diote.

Udaletxeko balkoian Palestinarren bandera ipintzea erasoaldia irauten duen bitartean.

### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### 3.- EAJk aurkeztutako Mozioa “puntu.eus” domeinuari buruzkoa.

#### Proposamena

Gizarteratu da, dagoeneko, puntu.eus domeinua.

Euskararen normalizaziorako inguruan ditugun baliabide eta tresna guztiak baliatu behar ditugula uste dugulako, puntu.eus domeinua gizarteratzen laguntzea ere bada herri-erakundeen eginbeharra.

Bestetik, euskaldunen komunitatea trinkotzeko ezinbesteko pausua da hizkuntzaren erabilera areagotzeko. Azken inkesten arabera, euskaldun kopuru altuena hiri handietan dago eta horrek zailtasun handiak sortzen ditu euskaldunen arteko harremanak sendotzeko garaian, populazioa handiagoa delako eta sakabanaketa ere, handiagoa izan daitekeelako.

Hori horrela, puntu.eus domeinuak lagundu du, zalantzarik gabe, bai komunitate birtuala, baita erreala ere, elkartzeko, sare gehiago, sare sozial deritzotenak hartu duten indarra ikusita.

Horregatik, norbanakoen lanaz gain, erakunde publiko eta pribatuak ere beren aletxoak jarri behar dutela uste dugu.

Prozesu horren abiarazte-aldia datorren irailaren 16tik azaroaren 18ra izango da. Denbora tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an aktibatuko dira, Euskararen Nazioarteko Eginean, hain zuzen ere.

Horregatik guztiatik, Ordiziako Udala izanda, herritar guztien gertueneko administrazioa, honako hau eskatzen diogu Udaleko Osoko Bilkurari.

1.- Udalaren domeinua, .EUS domeinu bezala erregistratu, aktibatuta ikusgarri izateko urrats guztiak eman ditzala onartzea, hartara, Euskararen Egunerako aktibatuta egon dadin.

2.- Herriko partikular, sein enpresak ere anima ditzala .EUS domeinura bihurtu ditzaten beren domeinuak.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Santamaria jn:

Adierazi du aspaldidanik honen zain geundela eta dagoeneko egia bihurtu dela; puntu.eus domeinuak lagunduko duela, zalantzarik gabe, bai komunitate birtuala, baita erreala ere, elkartzeko, sare gehiago, sare sozial deritzotenak hartu duten indarra ikusita. Jarraitu du esanez prozesuaren abiarazte-aldi berria irailaren 16tik azaroaren 18ra arte izango dela, eta mozioaren helburua dela “puntu.eus” domeinuaren erabilera orokortzea, Udalaren domeinua, .EUS domeinu bezala erregistratu, aktibatu eta ikusgarri izateko

urrats guztiak ematea, eta aldi berean herriko partikular zein enpresak ere animatzea .EUS domeinura bihur ditzaten beren domeinuak.

#### Alkate jn:

Adierazi du gai hau martxan dagoela, nahiz eta bere taldeak gai hau inoiz ez planteatu mozio bezala, baizik eta web gunearen aldaketarekin batera egiteko planteamendua izan; azpimarratu du hasieratik bera proiektu honetatik gertu egon dela, eta lehenengo fasean proiektu honetan aitzindari izateko 3.000,00 euro kostatzen zela, eta ikusten zela hasieran enpresa eta erakunde handietara zuzenduta zegoela, eta mozioaren zioa eta eskaerarekin adostasun osoa dagoela, eta mozioan aipaturiko epe barruan martxan jarriko dela, eta orain kostua ere minimoa izango duela, horregatik bere taldeak mozioaren alde bozkatuko du.

#### Dubreuil jn.

Adierazi du alde bozkatuko duela, baina iruditzen zaiola 2. Paragrafoan "bestetik, euskaldunon komunitatea trinkotzea ezinbesteko pausua a hizkuntzaren erabilera areagotzeko. Azken inkestean arabera, euskaldun kopuru altuena hiri handietan dago eta horrek zailtasun handiagoak sortzen ditu euskaldunen arteko harremanak sendotzeko garaian, populazio handiagoa delako eta sakabanaketa ere, handiagoa izan daitekeelako" esaten duenean kontraesan bat dagoela, eta ez duela ulertzen, baina apunte bat besterik ez dela.

#### Asenjo jn.

2. Paragrafoaren esan nahia argitu dio Dubreuil jaunari.

#### Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

#### 4.- Diru laguntza eskaera kooperazio proiektu baterako.

#### Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2014 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren,

Honakoa onartzea proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

SANDRA AGUNDEZ DEL CASTILLO (Ordizia, 1989) ordiziar gazteari 1.417,77 euroko diru laguntza ematea onartzea MEXIKORA kooperante gisa joateko.

SANDRA AGUNDEZ emakume indigenek zuzendu eta kudeatzen duten aholkularitza, laguntza, formakuntza eta ahalduntzea eskaintzen duen zentro batean arituko da lanean, eta ondorengo lanak burutuko ditu:

- Emakume gazteei zuzendutako gatazken ebazpenerako teknikak eta harreman interpersonalen inguruko tailerren burutzea.
- Gazte emakume hauei eta gizarteko beste hainbat emakumeei zuzenduko zaizkien, emakumeen eskubideen eta genero indarkeriaren inguruko tailerretan lagundu K'imal Antsetik-eko langileei.
- Emakume gazteei erregulatu gabeko hezkuntza arloan laguntza.
- Dokumentazio lanetarako K'imal Antsetik elkarteari lagundu.

Proiektua bultzatuz honako erakunde hauek egongo dira: K'imal Antsetik C.A.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Maiza and.

Adierazi du Ipar-Hegoa kooperazio programan barne, Sandra Agundez andrearen eskaera izan dela, eta arazo txikiren bat izan bada ere dokumentazio osoa aurkeztu ez duelako, behin eta Mexikon dagoenean dokumentazioa osatzeko konpromisoa hartu duela; bukatu du esanez beti bezala laguntza bidaiarako gastuak ordaintzeko ematen dela.

#### Dubreuil jn.

Galdetu du ea Mexikoko nongo zonaldera doan.

#### Maiza and.

Erantzun dio Chiapas-era dihoala.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketak egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

#### **5.- Mendekoen arretarako etxe laguntza zerbitzua finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko Hitzarmena onartzea.**

##### Proposamena

Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.

Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.

Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetearren, egoki ikusten dute beste lankidetzak hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren 31 arte luzatu zen lankidetzak hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuaren estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuaren finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.

Bi administrazioek uste dutela hitzarmenaren estipulazioak ez direla aldatu behar 2014. eta 2015. urteetan zehar udalei Gipuzkoako Aldundiak finantziario sistema beteko duela bermatzeko.

Hori guztia ondorengo klausulei jarraituz,

Udalarentzat interesa duenez hitzarmen honek, dagokion eztabaida egon ondoren, honako erabaki hau proposatzen da:



Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honakoa onartzea proposatzen da:

## AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzat hitzarmena sinatzea mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritzan sina dezan.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Alkate jn.

Gogorazi du puntu hau maiatzeko Udal Osoko Bilkuran sartzeko asmoa bazen ere, beste taldeek horrela eskatuta pendiente geratu zela; 2014-05-21eko Udal Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean gai hau sakon eta luze eztabaidu zen, eta eztabaida hori hitzarmenaren xedea baino zabalagoa izan zela, horregatik ez daki berriro eztabaida errepikatzeko asmorik dagoen. Jarraitu du esanez orduan esan zen bezala Eusko Jaurlaritzan gaia mugitu dela eta negoziazio bidea irekiko dela gizarte ongizateko hainbat gaitan, beraien aldetik betiko eskaera mantentzen dela, hau da Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu behar dituela egoitzen kompetentzia eta Udalek etxez-etxeko laguntza baina biak behar diren finantziario iturriekin, eta hitzarmen honek nahiz eta gaur-gaurkoz ez bete Udal honek nahi lukeen formalizazioa, sinatzeak ez duela aurkako inongo lotura suposatzen. Bestalde, Udalak irailerako bilera eskatuta duela Gipuzkoako Foru Aldundian, eta bilera horretan espezifikoki Ordiziako gaia tratatutako dela, aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak 5 egoitza hartu dituela, eta bilera horretan defendatuko dela Ordiziako egoitza datorren urtean hartzea, eta homologatzeko behar diren obrak egiteko diru laguntza izatea; bukatzeko adierazi du adierazle aldakor batzuen arabera Ordiziako Udalak 65.000 euro inguruko gainsarrera ere izan duela aurten Udalaren mesedetan, eta horregatik guztiagatik orain baiezkoa eman behar zaiola proposatutako hitzarmenari.

#### Santamaria jn.

Adierazi du hitzarmena irakurri eta aztertu ondoren ondorioztatu duela hitzarmen hau ez dela Ordiziako eta gainerako Gipuzkoako udalarentzat hitzarmen ona; gogoratu du aurreko legealdian mahai bat osatu zela, alde batetik Gipuzkoako Udaletan ordezkatuta zeuden alderdi guztiak eta bestetik Foru Aldundia, eta han garbi geratu zela erakunde bakoitzak bere eskumenak hartu behar dituela, eta egoitzen kasuan 2001.

urtetik egoitzak Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuta eduki behar zituela, ordutik hona sortu duten defizitarekin batera, eta onartzen zela 2008ko Legeak esaten duen bezala etxez etxeko laguntza zerbitzua Udalaren eskumena dela, eta bakoitzak bere finantziario iturriak behar zituenez, bi arazoak ez zirela nahastu behar, eta hori da azkenean egiten dena, bi arazoak nahastu egiten dira. Poztu da entzun duenean irailetik aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilerak egingo direla, espezifikoki Ordiziako arazoaz hitz egiteko, eta zentzu horretan babesa emango zaio Udal Gobernuari herri honetako interesak defendatzeko; bestalde, aipatzea 2008ko Legeari dagokionez, 6 urte pasatu ondoren, garatu gabe dagoela, eta horren ondorioz agian aldaketak etor daitezkeela eta hitzarmena orain sinatzea interes horien kontra joateko arriskua ere baduela; ulertzen dute hitzarmena sinatu gabe geratzea postura zaila dela, baina pentsatzen du Udal guztiak adostasun batera iritsi eta postura bakarra defendatu behar luketela, garbi dago nahastu egiten dela Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena etxez-etxeoarekiko, eta hori ez da zuzena. Bukatzeko aipatu du nahiko arriskua ikusten duela hitzarmeneko azken paragrafoan esaten duenean "hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eragin ekonomikoa urtarilaren 1etik duelarik; eta indarraldia 2014ko abenduaren 31 artekoa izango da. Hitzarmenaren epea amaitzean besterik gabe luzatuzat joko da beste urte natural bateko aldietarako, eta betiere nahikoa eta egokia den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako", eta hori zuzentzea eskatu behar dela.

#### Dubreuil jn.

Abstenitu egingo dela adierazi du, gaur egungo egoerak zalantzak sorrarazten dizkiolako; berak bat egiten du erakunde bakoitzak bere eskumenak hartu behar dituela esaten denarekin, baina kontu hau eztabaida zabalago batean aztertu behar da, Udalari dagozkion eta oraindik garatu ez dituen eskumen guztiak aintzat hartuta, eta udalerrri honetarako nahi dugun gizarte zerbitzu eredua definitu eta etxez etxeko zerbitzua horretara doitu. Bestalde, ikusten da Mendekotasun Legearekin etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskaerak behera egin duela kostu handia duelako; ez dakigu 2015ean zer gertatuko den, horregatik hitzarmena sinatzeak arriskua duela uste du; horrekin batera esan du, Foru Diputatuak adierazitakoaren arabera, Foru Aldundiak gizarte zerbitzuentzako kudeaketa zuzen baten eredua egingo du, eta galdetu dio eredu hori bera aplikatuko den Ordizian, izan ere horrek eragina izango luke neurri batean etxe etxeko laguntzan; hori dela eta, dituen zalantza horienegatik guztiengatik abstenitu egingo da.

#### Alkate jn.

Beste galdera batekin erantzungo diola esan dio; badakigu zertan datzan eta hau guztia nola garatu eta ezarriko den udalerrian? Ba ez, ez dakigu, baina kontuan izanda hau izango dela hitzarmena sinatzeko proposamenari baiezkota emateko funtsa, azaldu du, udalerrri honetarako eredu egokiena ez dela ikusten duela alde guztietatik, baita bere taldean bertan ere, eta horregatik irailean, bi urte hauetan zehar izandako elkarrizketei segida emateko berriro bilera egingo dute Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Ordiziako bertako kasuaz hitz egiteko, argi izanda egoitzaren kasua 2001. urtetik argitu behar zela, eta oraindik konpondu gabe dagoela; eta sinatuko dugunak asebetetzen ez bagaitu ere, sinatu egingo dugu, defizita ez handitzeko gutxienekoak dituen hitzarmena delako, eta hitzarmena sinatuz defizitaren eragina murrizten delako, eta sinatzen ez badugu kaltetuak atera gaitzkeelako; hala ere, erabateko bermerik ez dagoenez, gure ustez, sinatzen badugu irizpide orokor baten baitan kalte gutxiago izango dugu, eta azkenean ez bada sinatzen kalteak ugaritu egingo lirake; ondorio gisa argi utzi nahi dugu sinatzen dena ez dela egokiena Ordiziarentzat, baina abantaila gehiago dituela eragozpenak baino, eta errepikatu nahi dut irailetik aurrera Ordiziaz berariaz hitz egingo dela, eta 2015 urterako Udal honekin dituzten konpromisoak zehazteko ahalegina egingo dela.

### Dubruel jn.

10. klausulatik gutxienez Santamaria jaunak zehaztutako paragrafoa kentzeko eskatu du, honakoa dioen testua "siempre que existe consignación presupuestaria y adecuada para el ejercicio prorrogado"; etxez etxe arretari dagokionez arrisku handia ekartzen duela uste duelako.

### Alkate jn.

Sinatzen ez bada ezer aldatzeko beharrik ez dagoela, hori esan du, eta akordio hauek guztiak orokorrean baldintzatuta egoten direla aurrekontu gordailuetara erakunde guztietan, eta gogorarazi dio Floreagako gaian ere mota honetako klausula bat ere badagoela. Negoziaziorako borondaterik badagoen eta aurrera egin nahi den, hor dago aldea, beti ere aurrekontuak beharretara egokitzen diren esperantzarekin edo operazioa propaganda hutsa izan daitekeen, gauza bat edo bestea izan daiteke, baina mahai gainean dugunarekin gaiarekin aurrera egiteko asmoa dagoela uste dut, hori dela eta, ez diot garrantzi handiegirik ematen zehaztutako paragrafoari, gogorarazten baitut administrazio guztiak orokorrean horrelako "koletillak" jartzen dituztela hitzarmenetan.

### Dubreuil jn.

Esan du, hitzarmenetan beraiek horrelako "koletillak" jarri izan dituztenean zuek kritikatu egin izan dituzuela eta kentzeko eskatu izan duzuela, eta gogorarazten du hori bera gertatu zela adibidez gizarte ongizateko gaiekin, bazenkitenean urtero gordailua hazi egiten zela beharren arabera.

### Alkate jn.

Azaldu du ez dakiela zeinetaz ari den "zuek" esaten duzuenean, izan ere, berari dagokionean, ez diote erakundeetan egoten utzi 18 urte zituenetik, baina eboluzioaren alderdi onean sinesten du, eta orain arduratsuak garenez eta administrazio ardurak dagokigunez, ardurak ekartzen du neurri batzuekin kontua izatea eta erantzukizunak hartzea.

### Maiza and.

Sinatu ez den hitzarmen bat ezin da hobetu, hori esan du, ez duela udalerririk asebetetzen %100ean eta hori agerikoa dela, baina ezarri eta gero helburua dela berraztertzea eta garatzea, beti ere hobetzeko helburuarekin, eta sartzeko modu bat dela gehitu du, hobetu beharko den prozesu baten hasiera.

### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU 6)

Aurkakoak: 5 (EAJ 5)

Abstentzioak: 1 (PSE-EE (PSOE))

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### 6.- Kreditu aldaketa 10. espedientea.

#### Proposamena

2014ko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu da eta kredituaren beharra duten partidak ezagutu dira. Baita ere, Aurrekontua onartu zenean ez zeuden behar berriak sortu dira eta aurre egin behar zaie.

Beste aldetik, beste partida batzuetan ikusi da behar baino kreditu handiagoa dagoela eta erabil daitekeela, sortu diren behar berriei aurre egiteko moduan.

Espedientea prestatu da eta 2014-7-16an egindako Plenoko Gaien Batzordean horren berri eman da.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu transferentzi 10. espedientea onartzea, segidako zehaztasunarekin:

#### 2014ko AURREKONTUA KREDITU-TRANSFERENTZIEN .ESPEDIENTEA KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
<b>ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		
161.121.00.03	Jubilazioa aurreratzeagatiko kalte-ordainketa	23.500,00
481.324.00.01	Partaidetzarako dirulaguntzak	2.000,00
212.422.12.01	Urdaneta Ikastetxeko instalazioen mantenimendua	2.500,00
211.435.00.01	Eraikinen mantenimendua	2.000,00
160.454.11.04	Elkarkidetza Jaiak	950,00
226.454.11.99	Ordiziako Jaiak	3.000,00
226.454.12.99	Euskal Jaiak	10.000,00
227.611.00.09	Bilketa exekutiboaren hitzarmena	8.400,00
230.622.31.01	Peri Berezitako langilearen dietak	1.000,00
<b>KAPITAL ERAGIKETAK</b>		
623,435.00.02	Udal Biltegian gasoleo depositua legeztatu	1.550,00
601.444.00.01	Bidegorri Ampuero kalea	8.600,00
601.511.00.04	Asfaltaduak	13.000,00
		23.150,00
		76.500,00

FINANTZIAZIOA  
KREDITU MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
227.121.00.01.2013	Eraikinen garbiketa	12.850,00
227.422.12.01.2013	Eraikinen garbiketa	15.000,00
227.313.99.04	Ongizate Zerbitzuko hitzarmenak	27.750,00
481.451.10.03	Urteurrenetarako dirulaguntzak	1.500,00
		57.100,00
KAPITAL ERAGIKETAK		
622.422.12.01.2013	Urdaneta Ikastetxeko etxebizitzaren bermoldaketa	9.400,00
601.511.00.09	Domingo Unanue plazako zuloaren konponketa	10.000,00
		19.400,00
		76.500,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du 2014-07-16ko Udal Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean bertan eman zituela espedienteari buruzko azalpenak, eta ez badago azalpen gehiago eman beharrik bozketara pasatuko dela.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU 6, EAJ 5)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (PSE-EE (PSOE) ,5 (EAU 5))

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman

## 7.- 2014ko kontu Orokorrak onartzea.

### Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak, 2014ko ekainaren 4an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2013ko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Aldeko txostena jendurrean egon da ikusgai, 2014ko ekainaren 10eko GAOko 108. alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4. artikuluan dagoena aplikatuta, honako hau onartzeko proposamena egin zaio Udalbatzari.

AKORDIO PROIEKTUA.

2013ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## 8- Galde-erreguak

Alkateak adierazi du ekarpen bat egin nahi duela jakinaren gainean jartzeko irailetik aurrera proposamen bat ekarriko duela udal taldeek egiten dituzten bilkuren aktak publiko egiteko, zeren eta ikusi da bileretan emandako informazioa nahita gaizki helarazten dela herritarrei, eta azpimarratu du oso harrিতa geratu

direla azken asteetan taldeen artean egindako hainbat bileren ondoren zer nolako informazioa eman den, eta ez daudela prest bilera horietan hitz egiten diren gauzak herritarrak nahasteko nahita erabiltzea edo/eta bilera horiek gure lana oztopatzeko erabiltzea; bukatu du esanez ekartzen den proposamena beti ere egingo dela Legearen ikuspegia zainduz eta bilera horien publikotasuna aintzat hartuz.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.